



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKINTASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

ERABAKIA ,2019ko OTSAILAREN 1eko UPV/EHUko GERENTEARENA, LAN POLTSA ZABALTZEKO HAUTAKEA PROZESURAKO DEIALDIA EGITEKOA, ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN (AZP) ARLOAN ALDI BATERAKO ZERBITZUAK BETETZEKO LAN POLTSA: GESTIOKO TEKNIKARIEN ESKALA (MEDIKUNTZA)

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak uneoro eduki behar du eskura AZPkoen zereginak betetzeko moduan dauden pertsonen zerrenda bat, bai dauden lanpostu hutsak betetzeko, harik eta lanpostu horiek arauak agintzen duten moduan bete arte, eta bai aldi baterako premiak asetzeko.

Unibertsitatean aldi baterako lana kudeatzeko eta antolatzekeo tresna 2017ko uztailaren 18ko Akordioa da, lan poltsak eratzeari eta kudeatzeari eta lan poltsetako kideak ordenatzeari buruzkoa (2018ko maiatzaren 16ko EHAA, 93. zk.),

Akordio hori aplikatuz, administrazioak dauden poltsak zabaltze beharko ditu lanerako moduan dauden izangaien kopurua ez denean nahikoa aurreikusten diren premiei erantzuteko. Horretarako, behar diren aldi baterako hautaketa deialdiak egingo ditu.

Hori dela eta, deialdi honen helburua da A titulazio taldeko pertsonak hautatzea Gestio Teknikarien eskala (Medikuntza)-espezialitatean sor litezkeen premiak betetzeko. Betebeharreko titulazioa: Medikuntzan Lizentziatua edo Gradua eta honez gain, laneko medikuntzaren espezialitatearekin edo Enpresa medikuntzan diplomatua.

Gerenteari eskuordetu zaio erabaki hau emateko eskumena, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko Erabakia dela bide (gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzeko erabakia, 2017ko otsailaren 3ko EHAA). Beraz, aurreko guztia kontuan hartuta, gerenteak honako hau

ERABAKI DU:

Lehenengo artikulua.- Deialdia egitea Gestio Teknikarien eskalako (Medikuntza) lan-poltsa zabaltzekeo hautaketa-prozesurako, erabaki honen I. eranskinean jasotako oinarrien arabera.

Lan poltsa honen bidez beteko diren aldi baterako eginkizunak A titulazio taldeko eta Gestio Teknikarien eskalakoak (Medikuntza) izango dira. Betebeharreko titulazioa: Medikuntzan Lizentziatua edo Gradua eta honez gain, laneko medikuntzaren espezialitatearekin edo Enpresa medikuntzan diplomatua.

Prozesu honetan hautatutako pertsonen zerbitzuak hiru campusetako



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAINASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

edozeinetan bete ahal izango dituzte zerbitzuak

Bigarren artikulua.- Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta beraren kontra aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioko Gerenteari, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, jar daiteke zuzenean administrazioarekiko auzietako dagokion epaitegian bi hilabeteko epean. Erabakia hedabideetan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira kontatzen epe biak.

Leioan, 2019ko otsailaren 1ean

Miren Lorea Bilbao Arteche

UPV/EHUKO GERENTEA

